



<p style="text-align: center;"><i>Aurretzako kontsulta publikoa</i></p> <p style="text-align: center;"><b>ZARATARI ETA BIBRAZIOEI BURUZKO UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILE BERRIAREN PROPOSAMENA</b></p> <p><b>Aurrekariak</b></p> <p>39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearenak, VI. Tituluan arautzen ditu administrazio publikoen legegintza ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala.</p> <p>Honela, lege horren 133. artikuluan xedatutakoaren arabera, araudi proiektu bat prestatu aurretik, kontsulta publikoa egin behar da. Honakoa dio artikulua horrek:</p> <p><i>«133. artikulua. Herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea.</i></p> <p><i>1. Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:</i></p> <ul style="list-style-type: none"><li><i>a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.</i></li><li><i>b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.</i></li><li><i>c) Arauaren helburuak.</i></li><li><i>d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatuak eta ez-erregulatuak (...).</i></li></ul>	<p style="text-align: center;">Consulta pública previa</p> <p style="text-align: center;"><b>PROPUESTA DE NUEVA ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE RUIDOS Y VIBRACIONES</b></p> <p><b>Antecedentes</b></p> <p>La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, regula en su Título VI la iniciativa legislativa y la potestad reglamentaria de las Administraciones Públicas.</p> <p>Así, el artículo 133 de la citada ley establece que, con carácter previo a la elaboración de un proyecto normativo, debe realizarse una consulta pública. Dicho artículo dice lo siguiente:</p> <p><i>«Artículo 133. Participación de los ciudadanos en el procedimiento de elaboración de normas con rango de Ley y reglamentos.</i></p> <p><i>1. Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:</i></p> <ul style="list-style-type: none"><li><i>a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.</i></li><li><i>b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.</i></li><li><i>c) Los objetivos de la norma.</i></li><li><i>d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias (...).</i></li></ul>
---	---



<p>Tolosako Udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoa Departamentuak zaratari eta bibrazioei buruzko ordenantza arautzailea osatzeko beharra proposatu du.</p> <p>Legeak ezarritako prozedura betetzeko, alde zuzeneko kontsulta publikoa egingo da, ordenantza onartu aurretik.</p> <p>Herritarrek, erakundeek eta elkarteek hala iriziz gero, parte hartu ahal izango dute eta ekarpenak egin, bi bide hauetako edozein erabilita:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Helbide elektronikoa honetara bidalita: <a href="mailto:hirigintza@tolosa.eus">hirigintza@tolosa.eus</a></li><li>• Udalaren Erregistroan aurkeztuta, aurrez aurre zein telematikoki (Plaza Zaharra 6-A, Tolosa).</li></ul> <p>Horretarako, 15 lanegun izango dituzte, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.</p> <p><b>Ekimenarekin zer arazo konpondu nahi diren.</b></p> <p>Ordenantza berri bat onetsita eta, udalerriek herritarren bizi-kalitatearen hobekuntza dakarren jarduerak garatzeko duten ahalaz baliatuz, lortu nahi da Tolosako herritarrak kutsadura akustikotik babestea eta, horretarako, zarata- zein bibrazio-fokuen mugak zein zehaztapen teknikoak ezartzea.</p>	<p>El Departamento de Urbanismo, Obras y Servicios, Medioambiente, Movilidad y Transición Energética del Ayuntamiento de Tolosa, plantea la necesidad de elaborar una Ordenanza reguladora de ruidos y vibraciones.</p> <p>Para el cumplimiento del procedimiento establecido por la ley, se realizará una consulta pública previa a la aprobación de la ordenanza.</p> <p>La ciudadanía, instituciones y asociaciones podrán participar y realizar aportaciones a través de cualquiera de las dos vías siguientes:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Enviando un e-mail a la siguiente dirección: <a href="mailto:hirigintza@tolosa.eus">hirigintza@tolosa.eus</a></li><li>• Presentado en el Registro del Ayuntamiento, tanto presencial como telemáticamente (Plaza Zaharra 6-A, Tolosa).</li></ul> <p>A tal efecto, dispondrán de 15 días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación del anuncio.</p> <p><b>Problemas que se pretenden resolver con la iniciativa.</b></p> <p>Con la aprobación de una nueva ordenanza y en el ejercicio de la potestad de los municipios para desarrollar actividades que supongan una mejora de la calidad de vida de los ciudadanos, se pretende proteger a la población de Tolosa de la contaminación acústica, estableciendo los límites y especificaciones técnicas de los focos de ruido y vibración.</p>
---	--



<p>Hala, ordenantza arautzaile berriaren aplikazio eremua izango litzateke zaratafoku publiko edo pribatuak, pertsonentzat edo ingurumenarentzat eragozpenak edo edozein eratako arriskuak sor ditzaketenak. Zehazki, honakoak:</p> <p>a) Oro har, udal-lizentzia, baimena, aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena behar duten jarduerak eta obrak.</p> <p>b) Bide publikoko obrak, makinak, instalazioak, motorren zirkulazioa ...</p> <p>c) Hiri-bideak eta udal-eskumeneko azpiegiturak, garbiketarako udal-ibilgailuak eta udal-zerbitzuak.</p> <p>d) Jendea pilatzea asteburuetako jolas-eremuetan, jaialdietan, kontzertuetan, plazetan soinu-animazioa duten ikuskizunetan.</p> <p>e) Justifikatu gabeko edo gizalegearen kontrako portaerak (auzotasun-portaerez bestelakoak) pertsonen arteko eguneroko bizikidetzan jasan daitezkeen eragozpenak argi eta garbi gainditzen dituztenak edo hiri-ingurumenari eragiten diotenak.</p> <p>Azken batean, ordenantza arauemaile berriarekin tolosarrek kutsadura akustikorik gabeko hiri-ingurumenaz gozatzeko duten eskubidea bermatu nahi da.</p>	<p>Así, el ámbito de aplicación de la nueva ordenanza reguladora serían los focos emisores acústicos, públicos o privados, susceptibles de producir molestia o suponer riesgos de cualquier naturaleza para las personas o el medio ambiente. En concreto, los siguientes:</p> <p>a) En general, las actividades y obras sujetas a licencia municipal, autorización, comunicación previa o declaración responsable.</p> <p>b) Obras en la vía pública, maquinaria, instalaciones, circulación de motocicletas...</p> <p>c) Viales urbanos e infraestructuras de competencia municipal, vehículos municipales de limpieza y servicios municipales...</p> <p>d) Acumulación de gente en zonas lúdicas de fin de semana, festivales, conciertos, espectáculos con animación sonora en plazas.</p> <p>e) Comportamientos no justificados o incívicos, distintos a los comportamientos de vecindad, que superen claramente las molestias tolerables en la convivencia diaria entre personas o que afecten al medio ambiente urbano.</p> <p>En definitiva, lo que se pretende con la nueva ordenanza normativa es garantizar el derecho de los tolosarras a disfrutar de un medio ambiente urbano sin contaminación acústica.</p>
---	---



<p><b>Araudia onartzeko beharra eta egokitasuna</b></p> <p>Aintzat harturik zaratari eta hots-kutsadurari buruzko Estatuko zein Euskal Autonomia Erkidegoko araudietan jasotakoa, nahitaezkoa da udalek arlo horietan xedatutako gaiei buruzko udal-ordenantza espezifikoak arautzea.</p> <p>Hortaz, Tolosako Udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoa Departamentuak premiazkoa ikusten du lehendabizikoz zarata eta bibrazioari buruzko ordenantza bat sortzea; udal eskumenak arlo horretako jarraibide arautzaile berrietara egokitu daitezen.</p> <p>Beraz, beharrezkoa zein egokia da Tolosako udalerrri guztian aplikagarri izango den zaratari eta bibrazioei buruzko ordenantza arautzailea abian jartzea.</p> <p><b>Ordenantzaren helburuak</b></p> <p>Ordenantzaren helburu orokorra izango litzateke kutsadura akustikoari buruzko Estatuko eta Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoa osatzea eta arautzea udal-eskumenen eremuan, araudi horrek kutsadura akustikoa saihestu, murriztu eta zaintzeko, ordenantzak Tolosako udalerriko herritarren osasunerako, ondasunetarako edo ingurumenerako eragin ditzakeen kalteak eta eragozpenak saihestu eta murrizteko, bai eta udalerriko ingurumen-kalitate akustikoa hobetzeko udal-mekanismoak ezartzeko eta eraikin berrien babes akustikorako beharrezkoak diren eskakizunak garatzeko ere.</p>	<p><b>Necesidad y oportunidad de su aprobación</b></p> <p>Teniendo en cuenta lo recogido en la normativa estatal y vasca en materia de ruido y contaminación acústica, es necesario que los ayuntamientos regulen ordenanzas municipales específicas sobre las materias dispuestas en estas materias.</p> <p>Por tanto, el Departamento de Urbanismo, Obras y Servicios, Medio Ambiente, Movilidad y Transición Energética del Ayuntamiento de Tolosa considera urgente la creación por primera vez de una ordenanza de ruido y vibración que adapte las competencias municipales a las nuevas directrices normativas en la materia.</p> <p>Por tanto, resulta necesario y oportuno poner en marcha la ordenanza reguladora de ruido y vibraciones que será de aplicación en todo el municipio de Tolosa.</p> <p><b>Objetivos de la Ordenanza</b></p> <p>El objetivo general de la Ordenanza sería completar y regular en el ámbito de las competencias municipales, lo estipulado en la normativa estatal y autonómica sobre contaminación acústica, con objeto de prevenir, reducir y vigilar la misma, evitar y reducir los daños y molestias que de ésta se pudieran derivar para la salud de la ciudadanía del término municipal de Tolosa, los bienes o el medio ambiente, así como establecer los mecanismos municipales para mejorar la calidad acústica ambiental del municipio y desarrollar las exigencias necesarias para la protección acústica de las nuevas edificaciones.</p>
--	---



<p><b>Araudi bidezko eta araudiz besteko zer beste irtenbide izan daitezkeen</b></p> <p>Kutsadura akustikoak jatorria oso iturri desberdinetan izan dezake eta, horregatik, kutsadura hori murriztu nahi denean ekintzek ere mota askotakoak izan behar dute eta, espezifikoak, egoera bakoitzerako.</p> <p>Hori dela eta, uste da Tolosako udalerrian kutsadura akustikoa prebenitu eta murrizteko tresnarik egokiena eta eraginkorrena proposatutako zaratari eta bibrazioei buruzko ordenantza arautzailea dela.</p>	<p><b>Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.</b></p> <p>La contaminación acústica puede tener su origen en fuentes muy diferentes y, por ello, cuando se pretende reducir dicha contaminación las acciones deben ser también variadas y, específicas, para cada situación.</p> <p>Por ello, se considera que la herramienta más adecuada y eficaz para prevenir y reducir la contaminación acústica en el municipio de Tolosa es la ordenanza reguladora de ruido y vibraciones propuesta.</p>
---	--